



Astelehen honetan hasiko da URA Ziako erreka- saneamendua hobetzeko eta uholdeetatik babesteko proiektua gauzatzen

- **Hiru fasetan gauzatuko da proiektua; lehen faseak 30 hilabete inguru iraungo ditu.**
- **Tramoka gauzatuko da, eta trafikoan eragina izango du.**

Andoainen, 23-10-27.- Astelehen honetan, urriaren 30an, Ziako erreka-
saneamendua hobetzeko eta uholdeetatik babesteko proiektuaren gauzatzeari
ekingo zaio. URAk eramango du aurrera proiektua eta hiru fasetan gauzatuko du.

Saneamenduari dagokionez, lehen fase honetan Ama Kandida 2. zenbakitik ia
Urnietako mugarainoko lanak egingo dira eta Martin Ugalde Kultur parkean
hasiko dira astelehen honetan Urnieta aldera. Uholdeetatik babesteko proiektuari
dagokionez, Martin Ugalde parketik Denak poligonorainoko lanak hartuko ditu
lehen fase honek, baina aurrerago hasiko dira gauzatzen.

Lehen fase honek guztira 30 hilabeteko epea iraungo du gutxi gora-behera. Lanak
zatika edo tramoka gauzatuko dira, eta beraz, trafikoan eragina izango dute,
erreka itxita izango baitira zenbait eremutan. Behar denetan aldikako pasabidea
egokituko da.